

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 276. zenbakia. 2019ko martxoa

**Pedro Horrillo,
Itzulian
zuzendari**





IRAZABAL
clínica dental

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. **GALDETU**



Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Maiatzaren 2tik 10era,
0 eta 2 urte bitarteko umeentzat
(Irailan, urrian eta azaroan hasteko)




Ordutegi malguak
Plaza mugatuak
Zuen beharretara egokitzen gara

Apirilaren 9an
ATE IREKIAK
18:00etatik
19:00etara

ERMUKO HAURRESKOLA
Iparragirre,15 (Antzoki parean)
943 17 64 31
ermua.ermua@haurreskolak.eus

HaurreSkolaK

www.haurreskolak.net



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Oskar Matxin.

LAGUNTZAILEAK:

Eneritz Arriaga, Eskolabarri,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Udal Liburutegia,
Valentin Mugarza,
Ainara Riveras
eta Iñaki Unzalu.

ARGAZKIAK:

Maite Areitioaurtena,
Esti Arrizabalaga,
Maialen Begiristain,
Emakumearen Topalekua,
Eskolabarri,
Estibalitz González,
Komite Internazionalistak,
Oskar Matxin,
Valentin Mugarza,
Raquel Rueda,
Amaia Sangroniz,
Anabel Sanz, Stai Zitto,
Dorleta Vidal
eta Leire Zearreta.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ainhoa Garitagoitia
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/1994.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Erronda kantua

Euskaldun jaio nintzan

Euskaldun jaio nintzan
euskeraz naz hazi,
euskera eustalako
amak erakutsi.
Euskera laztan maite
zugaz nahi dot bizi
ta euskera hil ezkeru
ez dot gura bizi!



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Amaia Sangroniz (Polonia)	BOTEPRONTOAN.....16 Mertxe Garitagoitia
ELKARRIZKETA5-7 Anabel Sanz	KIROLZALE.....17 Pedro Horrillo Itzulian
MALLABIAN ZER?8-9 Ametzaga jauregia	IRITZIA18 Pinu Insignisaren gaitzaren harira
MOTZEAN.....10-11 Ermuarrak eta mallabitarak Lilatoian	ZORION-AGURRAK19 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER?12-14 Badator Korrika!	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ESKOLEN TXOKOA15 Eskolabarriko berriak	SAREAN GALDEZKA21 Ermua eta Mallabia arteko espaloia
	APIRILEKO AGENDA22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Amaia Sangroniz

Urte erdi pasatu da Amaia Sangroniz ermuarra Krakoviara joan zenetik. Erasmus+ beka lortu eta aspaldiko ametsa egi bihurtzen ari da: urtebetez atzerrian ikastea.

- Erabaki erraza izan zen Krakoviara joatea?

Argi neukan kanpora joan nahi nuela, baina ez zen erabaki erraza izan. Gauza asko lagatzen nituen Ermuara. Azkenengo egunean bete nituen paperak! Dena den, bidaiatzea asko gustatzen zait, eta esperientzia hau horretarako eta beste gauza asko ikasteko ezin hobe delako uste dot.

- Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik zenuen?

Ba egia esan ez nuen pentsatzen horrela izango zenik. Uste dot Europa mailan Krakovia ez dela oso ezaguna, eta jendeak ez dakiela zelakoa den. Oso polita da, historia asko du eta Europako plazarik handienetakoa.

- Zer diozu jendeaz, janari-az, eguraldiaz...?

Jende nagusia nahiko atzeratuta dago pentsatzeko moduan, baina hori edo-

non gerta daiteke, eta gizonetakoak nahiko matxistak dira. Ez nuen imajinatzen ere zelakoa izango zen hermenen janaria, baina gustatzen zait. Neguan nahiko hotz egiten du, kar kar, baina euskaldunontzat ez da aldaketa handia.

- Ondo moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?

Hemen ingelesez ikasten dut, eta nire harremanak ingelesez dira. Hermenen hizkuntza ikastea gustatuko litzaidake, baina nahiko zaila da. Dendetan normalean ez dute ingelesez hitz egiten, beraz badakizkit hainbat hitz: kaixo, agur, egun on, eskerrik asko...

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Hemen oso ondo nago, baina bai familia eta lagunak faltan botatzen ditut. Nire aitaren janaria batez ere, kar kar! Baita lagunekin potean irtetea eta eurekin denbora pasatzea.



- Nolako da zure egun arrunt bat?

Pisu batean bizi naiz Mur-tziako neska eta mutil batekin, aleman bat eta Italiako beste mutil batekin. Hemen ez dago errutinarik. Eguna bakoitza ezberdina da. Bigarren lauhileko honetan asteazketik ostiralera bakarrik dauzkate klaseak, eta ordu gutxi batzuk. Unibertsitatean joaten naiz, eta etxera bueltatzean bazkaria egiten dut (nire pisukideak egin ez badu), eta normalean arratsaldetan kalera irteten gara, orain eguraldi hobe dagoela aprobetxatuz.

- Noiz egon zara Ermuara azken aldiz?

Gabonetan bueltatu nintzen. Bi aste bakarrik egon nintzen hor, baina familiaz eta lagunak disfrutatzeke denbora izan nuen.

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ekaina amaieran, kurtsoa amaitzean, bueltan egongo naiz, datorren urtean karre-ara amaitu behar dudalako Leioan. Baina argi daukat berriz ere joango naizela nonbaitera, ingelesa ikaste-ko eta etxetik kanpo esperientzia gehiago bizitzeko.

Amaia Arginzoniz

SAN ANTONIO

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Anabel Sanz, feminista:

“Ermuan hartu nuen justizia sozialarekiko konpromisoa”

Euskal Herriko feminismoaren aurpegi ezaguna bilakatu da Anabel Sanz ermuarra: Bilboko FeministAlde! Elkarteko kidea da, eta sarri askotan berari egokitu zaio taldearen bozeramaile izatea. Psikologian lizentziatua da, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko masterra dauka besteak beste, eta Basauriko Udaleko Berdintasun Teknikaria da egun. 25 urte baino gehiago daramatza Ermutik kanpo, baina hemen ekin zion feminismoaren bideari, eta bertako Emakumearen Etxearekin dituen loturak sendoak dira oraindik.

- *Martxoaren 8a igaro berri da. Zer nolako jarraipena izan du greba deialdiak?*

Oso altua, mugimendu feministan oso pozik gaude. Iaz lehen greba deialdia egin genuen, jarraipen itzela izan zuen, eta aurten iazkoa berdindu nahi genuen. Aitor-tu behar da mobilizazioa iazkoa baino handiagoa izan dela, baina aurten hobeto antolatu gara. Izan ere, iazko erantzunak ezustean harapatu gintuen. Esan dezakegu iaz diskurtso politikoa irabazi genuela: hitz egiteko aukera izan genuen, eta bitzta erdian jarri behar zela esan. Aurten diskurtso hori kontsolidatu egin da. Politikoen jarrera eta adierazpenak ere aldatu dira. Iaz ez zekiten zer esan mugimendu honen inguruan; aurten, al-diz, hauteskundeak gertu daudenez, probetxua atera nahi izan diote guztiek. Nahiz eta gehienei egoera ez gustatu, horren alde agertu behar izan dira.

- *Zer gertatu zen iazko Martxoaren 8an greba deialdiak horren erantzun zabalaz izateko?*

Beti esaten dugu greba hori ez zela izan eguneko txanpiñoia, ez zen egun batetik bestera sortu. Azken hamarkadan feminismoak izan duen genealogia begiratu be-



har da berau ulertzeko, genealogia horrek garatu dituen prozesu eta esperientziak aintzat hartu. Esaterako, 2008an krisialdiaren irakurketa multidimentsionala egin genuen, feminismoaren perspektibatik. Kapitalismoa bizitzaren aurkako eraso krudela zela azaldu genuen, eta hor ekin genion zaintzaren diskurtsoari. 2009an Jardunaldi Feministak egin ziren Granadan. 3.000 emakumek parte hartu genuen, eta horietatik 500 Euskal Herrikoak ginen. Urtebete geroago, Gallardón ministroa saiatu zen abortuaren legea atzera botatzen. Feminismoaren mobilizazioek lortu zuten legea bertan behera geratzea, eta

Gallardónek kargua utzi behar izan zuen. 2015ean indarkeria matxistaren kontrako mobilizazioek garrantzi handia izan zuten Euskal Herrian, "Beldurra aldeztatu da" lelopean. Eta 2016an "La Manada"ren erasoak amorrua piztu zuen emakumeengan, batez ere emakume gazteen artean, eta kalera irteteko gogoia agertu zen. Azkenik, 2017an Argentinako emakumeek planto bat egin zuten, hainbat gertaerek bultzatuta, eta horrek oihartzun handia izan zuen. Aipatutako puntu hauek guztiak 2018ko M8ko haziak izan ziren.

- *Beraz, urteetako paimenak piztu zituen emakumeak...*

Alde batetik bai, baina badaude arrazoi gehiago. Adibidez, instituzioek saltzen diguten berdintasunaren irudi faltsua. Duela 30 edo 40 urte feminismoa instituzionalizatu egin zen, hau da, mugimenduaren historia eta

dinamikak politika publiko bihurtu zituzten. Gauza bera gertatu da gai askorekin: Internazionalismoa lankidetzara politika bihurtu zen; ekologismoa, Agenda Local 21; eta feminismoa berdintasun politika bihurtu da. Euskararekin ere gauza bera gertatu da. Baina politika publiko hauek oso deskafeinatuak dira, puntu iraultzaileenak eta eduki transformatzaileak erabat ezabatu dituzte. Hau da, diskurtso politikoetan asko hitz egiten du gai hauetaz, baina politika horiek makillaje hutsa dira. Emakume gazteak konturatu dira berdintasun hori ez dela existitzen. Indarkeria matxista eta gure justizia patriarkal lotsagarri hau ikusi besterik ez dago.

- *Emakume gazteak dira nagusi manifestazioetan?*

Ez, belaunaldi ezberdinetako emakumeek hartzen dute parte manifestazioetan, eta hori oso polita da. Alabak, amak eta amamak

“Emakume gazteak berdintasunaren irudi faltsuaz ohartu dira”



OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

elkarrekin: emakumeak kokoteraino daude! Gazte asko daude, baina nik 56 urte bete behar ditut, eta berriro ere abortua defendatzera irtingo banintz, 4. aldia izango litzateke. Beste muturrean emakume pentsiodunak daude. Hauen parte-hartzea mobilizazioetan itzela izan da aurten. Ondo antolatu dira, eta diskurtso propioa dute, emakumeak eta pentsiodunak diren heinean. Feminismoan, aniztasuna da gure indargunerik handiena.

- Iazko mobilizazioetatik aurtengoetara aurrerapausoak eman dira berdintasunaren esparruan?

Ez, ez da martxan ipini emakumeen egoera hobetzen duen ezer, horregatik errepikatu dugu deialdia. Onartu behar dut ez dugula espero instituzioetatik aldaketa handirik. Esaterako, Josu Erkoreka jaunak aldarrikatu zuen bizitza jarriko zutela erdian. Bitartean, baditu Gipuzkoan eta Bizkaian prekaritatean bizi diren emakumezkoen bi zerbitzu greban (etxez etxeko laguntzaileena eta egoitzetako

langileena, hurrenez hurren), eta ez die irtenbiderik ematen. Politikoek momentuan komeni zaiena esaten dute, baina ez dute pausorik emateko asmorik.

- Zein esparrutan egin behar da lanik handiena?

Sistema kapitalista honetan oso zaila da emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea. Beste eredu sozial, politiko eta ekonomikoan saiatu behar gara, kapitalismoa ahulenen zapalketan oinarritzen delako. Esate baterako, emakume etorkinek eta errefuxiatuek pairatzen dituzte egungo politiken ondorioz bortitzenak, eta politika horiek aldatu behar dira. Halaber, jasaten dugun justizia patriarkalari ere buelta eman behar zaio, baina inork ez ditu epaileak behartzen feminismoan trebatzera. Hezkuntza lana ere egin behar da, eta ez da egiten.

- Azken bi urteetako greba deialdiek izan dituzten erantzunak ikusita, gizartean zerbait aldatzen hasita dagoela esan daitezke behintzat?

“Jasaten dugun justizia patriarkalari ere buelta eman behar zaio”

Bai, baina mugimendu bat horren indartsu agertzen denean, kontrako ahotsak ere sortu ohi dira. Kasu honetan, feminismoaren gorakarekin batera, *neomaxismoak* sortu dira. Dena den, emakume gazteak oso antolatuta daude, diskurtso indartsua dute, eta hortik etorriko dira aldaketak.

- Zer paper jokatzan dute gizonak?

Betidanik izan ditugu gizon batzuk gure alde. Baina uste dut gizonek ikasi behar dutela bigarren lerroan egotea, txikitatik sozializatzeko patriarkalean protagonista izaten hezi dituztelako.

- Ezagutzen duzu Ermuko Emakumearen Topalekuaren errealitatea?

Bai, jakina! Nire eskola politikoa Ermua izan zen. Ermuko Asanbladakoa nintzen, eta oraindik ere nire sustraiak han daude. Herri txiki batean, mugimendu sozial guztietako kide bihurtzen zara; izan ere, hiri handiago batean feministak bide batetik doaz, ekologistak bestetik, arrazakeriaren kontrakoak bestetik... Herri txiki batean mugimendu sozial guztietan eragiten duzu, jende gutxiago dagoelako. Beraz, justizia sozialarekiko konpromisoa Ermuan ikasi nuen. Ikasi nuen ere mundua eraldatzeko bide hori samu-

rragoa dela pertsona onez inguratuta bazaude, eta mugimendu sozialetan familia bat topatu daitekeela. Nire kasua da: familia eta lagunak topatu ditut bide honetan. Pentsa, badira 25 urte baino gehiago ez naizela Ermuan bizi, eta hala ere han ditut nire lagunak, sarritan ikusten ditudanak.

- Aipatu duzu feminismoaz gain, beste mugimendu sozialetan ere egin duzula lan. Zeintzuk dira beste lan esparru horiek?

Gaur egun, FeministAlde!ko kidea izateaz gain, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kidea ere banaiz. Niretzat, ezkerreko izatea esperientzia globala da. Ezin daiteke ezkerreko izan, eta feminista, ekologista edo antirazista ez izan. Ezkerrean militatu izan dut beti, feminismoan batez ere, eta zorionez esparru honetan egiten dut lan. Baina buruan ditut mugimendu sozialak oro har. Lizentziatu ondoren langabezian eman nituen urte batzuk eta hainbat master egin behar izan nituen (Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta masterra, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko masterra eta Sexologia masterra, besteak beste). Esparru horietan ere eragiten saiatzen naiz orduan.

Dorleta Vidal



HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
 2012 ko BILBOKO
 TXORIZO TXAPELLETAN
 BIZKAIKO
 TXAPELDUNAK
 PROBLEMA 3-943170563
 ERMUA

ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
 Uxaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

Mallabiko eraikin esanguratsuenak:

Ametzaga jauregia (I)

Eskolaumeak aldi-aldika ibiltzen dira informazio bila, jakin-gosez, han-hemenka galdezka eta sarritan nahi besteko datu bildu ezinik. Ametzaga jauregia zerrendan dago beti eta ondoko fitxatxoak prestatu dugu umeon etxeko-lanak errazte asmoz.

ERAIKINA

Noren aginduz eraikia: Juan Bautista de Urizar y Amezaga.

Noiz: 1746-1750 artean, dokumentu zehatzik gordezten ez den arren.

Kokapena: Bidetxo batek lotzen du Jasokunde parroikia eta Kontzejuzarrarekin, hau da, sasoi bateko udal-etxearekin. Hartzen duen orubea udalari eresia da, dokumentu idatzietan argitzen zaigun bezala "...cuyo suelo y tierras heredades que tiene pegantes compró de esta dha. Ante Yglesia".

Estiloa: Barrokoa eta neoklasikoa nahaste. Bizkaiko nekazal eremuko jauregirik ederrenetakoen artean sailkatua dago.

Ezaugarri arkitektonikoak: Eraikin sendo karratua,

sarrerako atea arkudun atai baten babesean duena, inguruko baserri batzuen estiloa. Orientazio berezia du: fatxada nagusiak ekialdera ematen du, hegoaldera beharrean. Etxaurre solidoa du eta armarrria da alderdi horren elementu edertzaile bakarra. Hegoaldeko fatxadak, ostera, beste dinamismo bat

erakusten du eta harlanduzko bost zutabeei esker, balkoiez osatutako hiru galeria osatzen ditu, solairu bakoitzean bana. Galeriarena ez ohiko egitura da Bizkaian eta zerikusia izan dezake Urizar Madrilén bizi izanarekin.

Armarrria: Urizartarren armak erakusten ditu eta itxura guztien arabera jauregiaren eraikuntzaren ondoren jarritakoa da.

Izen desberdinak: Ametzaga, jatorrizkoa; Urizar, armarrriagatik eta Arana, Gregorio Arana, Benita Marquina jabeetako baten senarragatik.

FUNDATZAILEA eta OINORDEKOAK

Jaiotza: Juan Bautista de Urizar y Amezaga goratxoago jaio zen, Amezaga (Ametza) baserrian, 1689ko urtarilaren 1ean eta Jasokunde parroikian izan zen bataiatua. Pedro de Urizar y Amezaga eta Maria Donegaray mallabitarrek izandako 5 seme-alabetatik, hirugarrena izan zen bera.

Karguak: Gaztelako Gorenko Errege Kontseiluko kaperaua, Inkisizioaren oherrezko idazkaria, Madrilgo Inklusaren administratzailea eta baita Ermuko Orbe Kardinalaren idazkari eta albaiza. Politikan eta Elizako je-



Ametzaga jauregia eta honen ostean baserria, Ametzaga, bere fundatzailearen jaiotetxea.

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

SAGARDUI
poltsak


Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

rarkian, mailarik altuenetan mugituko zen; aipatutako kargu guztiok izango ziren bere gorakada ekonomiko eta sozialaren giltzarri eta jauregia altxatzeko ezinbesteko diru-iturri.

Jabegoa: Juan Bautista hiltzean, bere anaia Pedro, haren emazte Catalina de Zuloaga eta beraien seme eta Mallabiko abade zen Juan Bautista de Urizar y Amezaga y Zuloagaren esku geratu zen jauregia; beraien ondasun guztiakin hautazko maiorazko bat sortu zuten. Azken horrek, 1798an eginitako testamentuan, bere arreba Maria Bautista izendatu zuen oinordeko eta hilabete batzuk beranduago, honek bere seme Pedro de Marquina y Urizar de Amezaga. Ignacia de Urizar y Uribelarrearekin ezkontzean, emazteak aportatzen zuen maiorazkoa gehituko zuten; 1810an haien seme Francisco Antonio de Marquina Urizar Amezaga y Urizar Uribelarra izango da jabe berria eta 1847 Francisco Maria semea. Mutikoa zela izendatu zuten oinorde Jose Maria de Marquina eta hau hiltzean Jorge semeak hartuko du familiaren legatua. Honen heriotza-

rekin, 1926an, bere arreba Benita eta Josefina esku pasatuko dira ondasun guztiak. 1985ean Ametzaga jauregia eta bere inguruko lur sailak Agustin Ormacheak erosiko ditu, eta honen familiaren esku jarraitzen dute gaur egun ere.

Hautazko maiorazkoa, elektiboa: formula juridiko honen bitartez hainbat etxe, baserri eta ondasun Urizar y Amezaga abizenera lotetsi, binkulatu ziren. Lokarria hautazkoa izateak askatasun osoa suposatzen zuen oinordekoa aukeratzeko orduan, idatziz jasota dagoen bezala “sin preferencia de varón ni maior, de modo que el poseedor de él, pueda llamar y elegir para subesor a cualquiera de los hijos e hijas que tubiere, el que o la que mejor le pareciese mas ydoneo para la conserbación y aumento de este dho vinculo y mayorazgo, haciendo dho llamamiento y elección, si le pareciere combeniente en hembra aunque aya varones...”. Dokumentuaren beste leku baten aipatzen da “que todos los elexidos para subsección de este vinculo y maiorazgo han de apellidarse spre Amezaga por prime-



Urizar y Amezaga abizenaren hautazko maiorazkoa izendatzeko dokumentuak.

ro, o segundo apellido, p^a que por este medio aya memoria de su fundador”.

Bertan jaiok: Besteak beste, Jose Maria Marquina y Ardanza, Mallabiko alkate eta 1889ko gabon zahar bezperan tiroz erahila izan zena; eliz bidean, Zesteruane-ko etxe ondoan, harrizko gurutze batek gogoratzen digu ezbeharrak izandako lekua. Bertan munduratu ziren ere haren seme Jorge, Benita eta Josefina Marquina. Azken emakume honek eskolazion herriari; beraren eta senar Nicolas Learretaren omenez darama ikastetxeak Learreta-Markina izena.

Estibalitz González

“MALLABITARROK EGINA” EGITASMOA BURUTUKO DA MARTXOAREN 23AN

Herriak baserri-auzo ugari izan eta herrigunean bizi diren askok baserriotan ekoiztutakoa ezagutzen ez dutela erreparatuta, Mallabiko Berbalagunek ume, gazte eta helduei zuzendutako ibilbide eta egunpasatxo berezi bat proposatu du. Euskara, kultura eta herritarren arteko hartu-emaña uztartuz, egitasmo honetaz bigarren urtez gozatzeko aukera izango da martxoaren 23an. Bertarazten direnek zer ikusi, dasatu eta ezagutu ugari izango dute: goizean, Osman loragintza, Zengoitten etxeraikunta eta nekazaritzako antzinako tresneria, Trabaku goikon talogintza eta bazkari autogestionatua ondoren; arratsalde erdian gero, Goittan gaztagintza. Guztiz irekia da, familian, lagunartean, bikotean zein bakarka hartu daiteke parte eta eskatzen den konpromiso bakarra euskaraz egitearena da. Izena emateko, liburutegian edo 663070492 telefonoan.

Eskuz egindako terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

ZUZENBIDE KONTUAK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Quetzal
[arropa, bitxiak, opanak...]

Zubiaturre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

ERMUAN KANTUAN KALEJIRA ETA BAZKARIA EGINGO DA APIRILAREN 6AN

Euskal Birusa Euskara Elkarteak kantu bazkaria antolatu du apirilaren 6rako: 13:00etan elkartuko dira plazan, eta kantukalejira egin eta gero Txalaparta Elkartean bazkalduko dute (15:00etan). Apirilaren 2a baino lehen eman beharko da izena 688632874 telefonoan. Plaza mugatuak daude.

STAI ZITTO TALDEAK BIDEOKLIP BERRIA KALERATU DU



Otsailaren 15ean *Tú* abestiaren bideoklipa kaleratu zuen Stai Zitto talde ermuarrak. Bidaia diskoaren zati da *Tú*, eta Sergio Marcos argazkilari eta sortzaile bilbotarraren eskutik grabatua izan da. Abesti honen mezua askatasun pertsonalean errotzen da, berezko maitasunean eta norberaren onarpenean, taldekideek azaldu dutenaren arabera. Bideoklipa ikusi nahi dutenek taldearen sare soziale-tara jo beharko dute.

Mikel Losada eta Alain Kortazar aktoreek proiektu berriak dituzte

Apirilaren 26an estreinatuko da Kepa Sojo zuzendari arabarraren bigarren filma: *La pequeña Suiza*. Mikel Losada aktore ermuarrak parte hartzen du komedia honetan, Jon Plazaola, Maggie Civantos eta Karra Elejalderekin batera, besteak beste. Alain Kortazar aktore eta zuzendaria, aldiz, ONCEko azken iragarkian agertzen da.



Euskarazko liburuen gomendioak, “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” ekimenari probetxua ateratzeko

Udal Liburutegiko otsaila eta martxoko nobedadeen zerrendatik aukeratutako liburuak.

Arrutiren banda. Jon Arretxe (Erein, 2017)

Nobela honetan Jon Arretxe idazle bidaiariak jaioterrian kokatu du trama: Basaurin. Hasiera hasieran ageri zaigu konkistatu beharreko altorra, lapurretaren fruitu eta urmael batean gordeta omen dagoena. Altxor hori eskuratzeko ahaleginean lehiatuko dira nobela honetako pertsonaia nagusiak. Azpijokoz, intrigaz eta gezurrez betetako trama honetan, ezer ez da ematen duena. Zinema giroko sekuentziazio batekin, erritmo lasterlean garatzen da haria eta jazarpen grotesko batekin burutzen da.

Honetara ezker. Arantxa Iturbe (Susa, 2017)

Esan gabekoek, isilik gordetakoek, erdizka adierazitakoek ere moldatzen gaituzte. “Ez dago dena kontatu beharrik”, esan ohi da, eta halaxe jokatzen dugu. “Hiztuna da pentsamendua”, ikasi genuen, baina ezinezkoa da berbetara ekartzea burura etortzen zaigun guztia; “ezta komeni ere!”, aholkatuko dizute. Arantxa Iturberen ipuin maleziatsu hauetan ere ustekabeko asko izango dira, pertsonaiak eta gertakariak katramilatzen ikusiko dituzu isilpekoen kariaz, oker ulertuak bezainbat ager litezke susmoak. Umorezkoak batzuetan, gaiztoak sarritan.



Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Bueta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**mari
asun**

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

50 ermuar eta mallabitar baino gehiagok hartu zuten parte Lilatoian



1990ean Donostiako Koordinadora Feministak Lilatoia sortu zuen: Emakumeei zuzendutako 5 km.ko lasterketa. Martxoaren 10ean lasterketa horren XXX. edizioa burutu zen, eta bertan Euskal Herri guztiko 6.200 emakumek parte hartu zuten. Ermuko Udaleko Beldintasun Sailak autobusa ipini zuen bigarren urtez, eta 40 emakumetik gora berau

erabili dute Donostiaraino joateko. “Jai giroan igaro genuen eguna, ezin hobeto —adierrazi dute Lilatoiairen partaideek—. Ondo pasatzeaz gain, lasterketaren helburua ere bete genuen: emakumeak kirola egiten animatzea”. Antolatzaileek aurreratu dutenez, datorren urtean ere autobusa jarriko da partehartzaileak Donostiaraino eramateko. Bestalde, Mallabiko 10 emakumezkok ere parte hartu zuten lasterketan.

Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako ekitaldia burutu zen plazan



Martxoaren 21ean Arrazakeria eta Xenofobiaren kontrako Nazioarteko eguna izan zen. Hori dela eta, Nazioarteko Kooperazio eta Elkartasun Kontseiluak elkarretaratzea deitu zuen egun horretan plazan, eta 120 lagun inguruk parte hartu zuen. Ekitaldi honetan Giza Eskubideak errespetatzen dituen migrazio politika erreklamatu

zen, euren herrialdeetatik alde egin nahi dutenei segurtasuna bermatzeko. Halaber, herrialdeen arteko mugak ixtearen ondorio latzetan ipini zuten arreta, eta salatu zuten ultraeskuina Europa osoan zabaltzen ari den immigranteen kontrako diskurtsoa, botoak irabazteko helburua duena.

Andoni Isusi garaile izan da txakur krosetan



Andoni Isusi ermuarrak eta Baltok, bere txakurrak, Espainiako Txapelketa irabazi zuten martxoaren 9an Vaqueira-Bereten, txakur kros kategorian elurretan. Ez da euren garaipen bakarra. Otsailaren 10ean, Hondarribian burututako txapelketan Andonik eta Baltok gaueko lasterketa irabazi zuten. Guztira 3.2km. egin behar izan zituzten ilunetan, kopetan jarritako argiztapena erabilita. Txakur krosetako Euskadiko Txapelketako azken aurreko neurketarako, Andoni Isusik bere beste txakur bat aukeratu zuen, Tyson. Berarekin batera lasterketako 7,2km.ak bete zituen eta hirugarren heldu ziren helmugara. Eraitza honi esker Gipuzkoako Txapeldunak izan ziren. Eibarko Takuai Mushing taldeko kidea da Isusi, eta 4 urte inguru daramatza txakurrekin entrenatzen.

APIRILAREN 4AN BURUTUKO DA III. BERTSO POTEA



Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga izango dira aurtengo Bertso Poteko protagonistak. Bi bertsolariak Torrekua tabernan antolatzen duen bertso saioan parte hartuko dute (apirilaren 4an, osteguna, 21:00etan hasita). Aurreko urteetan bezala, afari-meriendaz gozatu ahalko dute bertaratzen diren guztiek. Sarrerak salgai daude jada Torrekua tabernan (10€).

MALLABIKO HAINBAT BIZILAGUNEK PARTE HARTU ZUTEN ETB2KO HISTORIAS A BOCADOS SAIOAN



Martxoaren 9an Mallabia bisitatu zuen Joseba Argiñanok, ETB2ko *Historias a bocadoseko* aurkezleak. Juan Luis Irazola, Karmele Gisasola eta Ruben Markina mallabitarrekin batu zen Argiñano. Haiekin hitz egin, haien zereginen berri jaso eta haiekin hainbat plater dastatu zituen saio honetan. Ikus-entzuleek herri honen parajeaz ere gozatzeko aukera izan zuten.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

esonline

+ @ + +

846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esonline.es

Bitsi-denda Tailor propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidua 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Maialen Begiristain, Ahize Hizkuntza Aholkularitzako teknikaria:

“Seme-alabei kalte egiteko beldurra izan ohi dute euskara ikasten diharduten gurasoek”

“Hizkuntza erabileraren gaineko solasaldia” deituriko saioa eskainiko du Maialen Begiristain altsasuarrak Ermuan apirilaren 3an (18:30ean), Berbetan Jardunaldien barruan. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago batez ere, eta gaztelaniaz izango da. 90 minututan, umeen hizkuntza joerak zuzentzeko klabeak emango ditu besteak beste Begiristainek, eta gurasoek euren kezka eta ardurak mahai gainean jartzeko aukera izango dute.

- Zer gai landuko dituzu solasaldian?

Aztertuko ditugu batetik elebitasunaren garrantzia eta zer onura dakartzkion umeari elebiduna izateak. Gainera hizkuntzen garrantziari buruz hausnartuko dugu. Azkenik, aztertuko dugu familian eta inguru hurbilean hizkuntza konpetentzia horiek nola kudeatu eta hobetu.

- Etxean ume euskaldunak dituzten gurasoek zer nolako kezkak izaten dituzte hizkuntzen arloan?

Ardura asko izaten dituzte. Pentsatzen dute ezin izango dutela seme-alabei lagundu etxeko lanak egiten, esaterako. Euskara ikasten ari diren guraso batzuk, bestalde, uste dute euren euskara mailak kalte egingo duela seme-alaben ikasketa prozesua. Beste batzuk kezkatuta daude

euren umeek ezin dutelako etxean euskaraz hitz egin. Errealitate horretan nola eragin eta zer egin dezakegun aztertuko dugu.

- Gurasoek aukera izango dute euren kezkak azaltzeko?

Aurkezpena eta azalpenak emateaz gain, asko gustatzen zait horrelako espaziotan esperientziak konpartitzea. Azken finean, ez sentitzea bakarrik gaudela, hurbileko jendeak bizi izandakoa entzutea interesgarria da. Edo ondokoari zer funtzionatu zaion jakitea, esaterako.

- Hizkuntzei dagokienez, zein joera nagusitzen da umeengan?

Umeek imitazioz jokaten dute, eta beraien sozializatorako helburua da helduen munduan murgiltzea. Orduan imitazio horretan, jotzen dute gurasoek egiten



dutena egitera. Eta guraso gehienek gaztelaniara jotzen dute berehala. Askotan parkean euskaraz hitz egiten saiatzen dira, baina gero bere bizitzako beste alor batzuetan gaztelaniara jotzen dute.

- Alor pribatuan, zer garrantzi daukate umeari eskaintzen zaizkion aukerak?

Garrantzi handia daukate. Egia da umeentzako euskarazko kultur kontsumoa kalitatezkoa dela eta aukerak badaudela (marrazki bizidunak edo Irrien Lagunak bezalako eskain-

tzak), baina momentu batean hori eteten da. Umeek 9 edo 10 urte inguru dituztenean ez dago horrelako eskaintzarik, ez badute gurasoek bilatzen eta umeari eskaini espresuki.

- Esfortzu handia eskatzen du errealitate horri buelta ematea?

Gure bizitzan gauza guztiek eskatzen digute esfortzu bat. Kontua da esfortzu hori bakarrik ez egitea; modu atseginean egin behar da, guztiok gustura sentitzeko. Horrela bada, lortuko dugu aldaketa ematea.

Dorleta Vidal

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

Apirilaren 13an igaroko da Korrika Ermutik eta Mallabitik

Apirilaren 4a eta 14a bitartean gauzatuko da aurtengo Korrika. Garesen hasiko da AEK antolatutako ekimen erraldoi hau eta Gasteizen bukatu, 200 herri baino gehiago zeharkatu eta gero. Aurtengo edizioa Eibartik helduko da Ermura (apirilaren 13an, larunbata, 15:30ean), eta handik Mallabira (15:49an, gutxi gorabehera). Baina egun bat lehenago, apirilaren 12an, Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Ermuko eta Mallabiko eskolek Korrika Txikiak egingo dituzte herriko umeekin.

Korrikaren aurtengo leloa "Klika" da. "Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera, hautu hori egitea; Klika egitea da herritar guztion hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartzea", azaldu dute antolatzaileek. 21. edizio honetan, Txillardegik izango da omendua, "euskaldunon historian egin den gauzarik inportanteena ziur aski Txillardegiri zor diogulako (...), estandarra sortu izana da: Euskara Batua", antolatzaileen esanetan.

Hamaika modu daude Korrikan parte hartzeko. www.korrika.eus webgunera jo, baietz zurea topatu!



KORRIKA KULTURALA ERMUA

Martxoaren 27an, 19:00etan. Hitzaldia: "Kontakizuna feminista izango da", Kattalin Miner, Lobianon.

Martxoaren 28an, 18:30ean. Korrika Aurkezpena: folk fusioa musika ikuskizuna, Photo Call, KM erosleekin argazkia, arropa..., plazan. **19:30ean.** Kalejira eta pintxo-potea, plazaatik abiatuta.

Martxoaren 29an, 17:00etan eta 19:00etan. Umeentzako ikuskizuna: *Musua*. Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Ermua Antzokian.

Apirilaren 3an, 18:30ean. Hitzaldia: "Hizkuntza-erabilera-aren gaineko solasaldia", Lobianon. **20:30ean.** Mokadua eta bertso-trama: Furgonako k@ntuak, Beñat Ugartetxea eta Arkaitz Estiballes, Infreñu Tabernan.

Apirilaren 6 eta 7an, Euskal Jaia: hainbat ekitaldi.

Apirilaren 9an, 18:30ean. Tailerra: "Nesken artean noka? Nola, Norekin, Noiz?" Idoia Eizmendik gidatua, Emakumearen Etxean.

Apirilaren 10ean, 19:00etan. Golazen-ekoekin solasaldi musikatua: "Zatozi!", Lobianon.

Apirilaren 12an, 15:15ean. Korrika Txikia. **16:30ean.** Txokolatada, plazan. **16:30ean.** Disko festa Jon Sáezekin. **17:00etan.** Umeentzako tailerrak Antxitxiketaneekin.

Apirilaren 13an, 12:00etan. Mokadu autogestionatua, plazan. **12:30ean.** Irulitxarekin kalejira, plazan hasita. **15:20etan.** Korrika, Unibertsitatean. **18:00etan.** Erromeria Zirkinik Bez taldearekin, plazan.

Maiatzaren 3an, 22:15ean. Antzerkia: *Ghero: azken euskalduna*, Tartean konpainia, Ermua Antzokian.

MALLABIA

Martxoaren 28an, 21:15ean. Biharko Izarrak Txapelketa, frontoian.

Martxoaren 30ean, 9:15ean. Prebenjamin Futbol Torneoa, frontoian. **10:00etan.** "Mallabitarrok egina", egun osoko ibilbidea, udaletxe pareko aparkalekutik abiatuta.

Apirilaren 5ean, 19:30ean. Lagun Artean abesbatzaren kontzertua, elizan.

Apirilaren 12an, 15:00etan. Korrika Txikia, eskolatik abiatuta. **16:30ean.** Txokolatada plazan. **17:00etan.** Umeentzako jolasak.

Apirilaren 13an, 15:49an. Korrika. **17:30ean.** Rockalean txaranga.

Ferreteria ANBOTO Burdindegik

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

SPARA
rehabilitación + sostenibilidad

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36. 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

Apirilaren 20an bukatuko da ume sahararrak etxean hartzeko eskaera-epea

Urtero bezala, Oporrak Bakean kanpaina ipini du martxan Haguniak, Saharar Herriaren Lagunen elkarteak hain zuzen ere. Honen bitartez, Saharan bizi diren 10 eta 12 urte bitarteko umeek bi hilabetez basamortua utzi eta gure artean bizitzeko aukera dute. Ermuar ugari programa honen parte izan dira jada, besteak beste Maite Areitioaurtena eta Raquel Rueda.

Raquel Rueda:
“Oso bestelako bizimodu baten berri izan genuen”

“2016an eta 2017an Saharako neskato bat izan genuen etxean. Betidanik iruditu zaiagu proiektu polita dela, eta azkenean animatu ginen. Hiru seme-alaba ditugu, eta gure etxea ez da oso handia; oporretako etxean ere ez zegoen leku handirik, baina ederto moldatu ginen. Hurrengo urtean errepikatu genuen! Oso esperientzia polita izan zen, oso bestelako bizimodu baten berri izan genuelako. Hasiara apur gogorra izan zen neskatoarentzat, ez zekiela hitz bat ere ez gaztelaniaz, eta bere familiaren falta sentitzen zuelako, baina denbora gutxian gustura sentitzen hasi zen. Eta oso harreman ona izan zuen batez ere nire alaba txikiarekin. Orain dela gutxira arte kontaktuan egon gara berarekin, izeba baten bitartez, baina hura ezkondu zenetik pista galdu diot umeari. Jende guztia animatuko nuke proiektu honetan parte hartzen, eta etorkizunean ez dut baztertzen nik neuk ere beste ume bat ekartzea”.



Maite Areitioaurtena:
“Asebetetzen duen esperientzia izan zen”

Zortzi urteko ume sahararra hartu genuen 2002an. Pentsatu genuen berarentzat oso garrantzitsua zela, eta laguntza eskaini nahi izan genion. Oso esperientzia polita izan zen, asebetetzen duen horietakoa, umearentzat zein guretzat. Ume hauek gauza pilo bat erakusten dizute. Esaterako, oso praktikoak dira: Guk tresna baten beharra dugu edo zertarako; haiek, aldiz, gauza gutxiarekin arazoei aurre egiteko moldatzen dira. Gu umeak ginenean egiten genuen bezala: beti buroa erabili behar! Ia 18 urte igaro dira ordutik, eta gaur egun ere ume harekin harremanetan jarraitzen dugu. Nire senarrak, Ignaciok, beti esaten zion ikasi behar zuela, formakuntza ezinbestekoa dela. Eta gure ume izandakoa Kuban dago egun, medikuntza ikasten. Duela 5 urte bertara joan ginen bisitan eta berarekin egon. Uste dut gure arteko harremanak betirako iraungo duela”.



Mariarro Arrizabalaga, Haguniako kidea:

- Nola kolaboratu daiteke programa honekin?

Interesa dutenek 699838347 telefonora deitu behar dute. Ez dute inolako ekarpen ekonomikorik egin behar, Ermuko Udalak ordaintzen dituelako umeen bidaiak. Gainera, jakinarazi nahi dugu norbanakoek ere umea jaso dezaketela, ez dago familiei bakarrik zuzenduta. Eskatzen den gauza bakarra da umeari beste ume batzuekin harremana izateko aukera ematea.

- Zein da ume hauen errealitatearen atzean dagoen arazoa?

Arazo politiko hutsa da, inplikatuak konpontzeko inolako asmorik ez dutena. 43 urte daramatza herri hau Saharako basamortuan, inoiz heltzen ez den erreferendum baten zain. Marokok euren lurraldea okupatzen dihardu ordutik, eta herrialde honen zati izan nahi duten edo independentzia nahi duten erabaki behar dute galdeteta baten bitartez. Baina erreferenduma ez da heltzen.

Dorleta Vidal



CITROËN
AUTOS AMEDI
 Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
 Telefonoa 943 17 04 14

uriarte asesores ✓
 Aholkularitza fiskala
 eta lege aholkularitza
 Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia



Dejate QUERER
 BERRIA ERMUA

Inauteriak ospatu genituen Eskolabarrin

Urtero bezala, Eguen Zuri egunarekin eman genion hasiera inauteriei Ermuan eta Eskolabarrin. Eguen Zuri egunean goizez bakarrik izaten dugu eskola, eta Artistikan egindako maskara edo txapelen batekin ateratzen gara denok. Urduri bazkaldu ostean, "Oilar jokoan" parte-hartze-ko asmoz, mozorrotu eta plazara hurbildu ginen. Gure izena noiz esango zuten zain, eta parte hartzaileak animatuz egon ginen. Eskolabarriko ume batzuk atera ziren, eta horietako bat Luken Medina izan zen: berak eraman zuen oilarra!

Ostiralean Hartzaren Eguna ospatu genuen eskolan. Hartzak ongietorria eman zigun goizeko 9:00etan, eta 6. mailakoek bertso eskolan presatutako bertsoak abestu ondoren, hartzaren koplak abestu genituen sarreran, bertaratu ziren gurasoekin batera. Ondoren, ume eta irakasle guztiak gimnasioan elkartu ginen, eta Txindurrik idatzitako koplak abestu genizkion Hartzari. Aurten kokoz mozorrotzeko gonbidapena luzatu ziguten euskara batzordeko ikasleek eta batzuk mozorrotuta etorri ginen eskolara. Asteartea eskolako egun handia izaten da. Aurten heavy, punk edo rockeroz mozorrotu ginen eta arratsaldean Ermutik kalejira egin genuen, asko entsaiatutako kanten koreografiak dantzatzuz. Primeran pasatu genuen!



Mikroenpresak sortu genituen

Gizarte-Zientzien arloan ikasten diren sektore ekonomikoak azaltzeko eta praktikan ipintzeko asmoz, Mikroenpresen proiektua sortu genuen. Eta pauso hauek eman genituen:

Hasteko gela lau taldetan banatu genuen. Talde bakoitzak enpresa bat sortzeko *bussines* plan txikia egin zuen: merkatuaren datuak jaso (ikasleak, irakasleak...); enpresa mota eta zer produktu ekoiztu erabaki; gastuak eta dirua nola lortu pentsatu (maileguak, abalistak...); irabaziak izateko edo mailegua bueltatzeko salmenta prezioa zein izan beharko lukeen eztabaidatu...

Gelan landu eta gero, 4. eta 5. mailako ikasleei mikroenpresen berri eman, eta hurrengo eguneko jolasaldian produktuak saldu zizkieten: Izugarriko arrakasta izan zuten! Denbora gutxian dena saldu zuten!



Bukatzeko, lortutako diruarekin zorrak eta gastuak ordaindu ondoren, etekinak banatu zituzten.

Eskupilota taldeak 2. topaketa egin zuen

Eskolabarrik 6 umez osaturiko eskupilota taldea sortu du. Batzokian entrenatzen dute ostiralero eta, motibatze helburuarekin, Bizkaia Frontoian egiten diren Hastapen Jardunaldietara apuntatu ziren. Hori dela-eta, martxoaren 10ean Eskola Kiroleko Eskupilotako 2. Jardunaldietan parte hartu zuten. Beste eskoletako eskupilota taldeetako umeekin jolas ezberdinak egin zituzten. Oso ondo pasatzeaz gain, lagun berriak egiteko aukera izan zuten.

Gorane Sampedrok Azterkosta Saria jaso zuen Donostian

Gorane Sampedro, Eskolabarriko 6. mailako ikaslea, Azterkosta kanpainako marrazki lehiaketako irabazlea izan da. "Aztertu" programaren sariak banatzeko ekitaldia otsailaren 23an burutu zen Donostiako Aquariumean. Ingurumeneko Sailburuordeak eta Aquariumeko Zuzendariak goraipatu eta eskertu egin zuten euskal ikasle eta irakasleen ingurumen-konpromisoa.

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiarpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299



Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

Silvia

peluquería



688819336

MERTXE GARITAGOITIA

- **Noiz etorri ziren gurasoak Ermura?**

1946an. Ezkondu, eta Felix Ormaetxeak egindako etxe handiko lehen solairua eta beheko lokala erosi zuten. Amak janari-denda zabaldu zuen bertan: alpargatak, piper-hautsa, aspirinak, olio... denetik saltzen zuen.

- **Horren parean dago egun Angela denda...**

Bai, Txabisolo deituriko lursaila zegoen bertan. 1955ean Nikolas Mugerza eta Eurne Idigorasi erosi zioten gurasoek, eta 4 pisuko etxea eta denda eraiki zuten. Sotoa ere badu, eta Errioxatik ekarritako ardoa eta olio bertan gordetzen genituen.

- **Noiz bihurtu zen arropadenda?**

1976an, amak erabakita. Urte berean hartu nuen nik dendaren gidaritza, eta beti izan ditut ondoan Mertxe Cruz eta Miren Zenikazelaia. Mertxe 14 urterekin batu zitzaigun, duela 44 urte; eta duela 33 urte Miren. Bizitza guztia daramagu elkarrekin, senideak bezala gara.

- **Atzera begiratzean, zein oroitzapen duzu?**

Extremadura eta Galiziako jendearekin harreman estua genuen, eta aitari Licor Café ekartzen ziotela gogoan dut. Asko gustatzen zitzaidan. Garai batean dendan bazkaltzen genuen. Uztailaren 18ko paga kobratutakoan, ateak zabaldu eta jendez betetzen zitzaigun denda.

- **Denda ixtea erabaki erraza izan da?**



1948ko martxoan jaio zen Ermuan, Pascual eta Angela mallabitarren alaba. Bera baino urtebete zaharragoa den neba du. Administrari ikasketak egin, Agustin Bilbao ermuarrekin ezkondu, eta hiru alaben amada. Azken 48 urteotan Angela arropadendako nagusia izan da, eta martxoaren 29an betiko itxiko ditu bere saltokiko ateak.

Erabaki boluntarioa izan da, baina ez da erraza izan, denda izakitzat baitut. Duela bost urte alargun geratu nintzen eta berriro ere nire lekua topatu arte itxaron dut. Baina urteak aurrera doaz, nekea ere hor dago, eta gauzak gero eta zailagoak dira.

- **Pena sumatzen da zure hitzetan...**

Bai. Pena handia dugu, eta gure bezeroek ere. Betidaniko denda da, eta bezero askorekin benetako adiskidetasun harremana dugu.

Herriko dendek xarma berezia dute.

- **Ez dira garai onak merkataritzarako?**

Ez, oso kontrolatuta gaude, ez daukagu inolako laguntzarik, gastuekin estutzen gaituzte... Ez da erraza aurrera egitea, are gutxiago 3 langile duen denda batentzat.

- **Lan honetan gehien estimatu duzuna?**

Jendearekin harremana.

- **Gutxien?**

Azken urteak oso agobian teak izan dira. Adinak ere eragina izan dezake.

- **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Ondo. Gauzak datozen bezala hartu behar dira.

- **Zer egiten duzu aisialdian?**

40 urtetik gora daramatzat koroan abesten. Horrez gain, mendian ibiltzen naiz, antzerkera noa, operara, bidaiatu egiten dut...

- **Zein lekutan egon zara eta zer daukazu oraindik bisitatzeko?**

Txinan, Argentinan eta Perun egon naiz, besteak beste. Senarrari eta bioi asko gustatzen zitzaigun bidaiatzea. Fiordoetara joateko asmoa genuen, baina Agustin gaixotu zen eta bertan behera utzi genuen bidaiaria. India ere gustuko dut. Kultura-nahasketa duten herrialdeek erakartzen naute.

- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Emakume bat mespreztzen denean. Betidanik ikusi dut ama lanean, gogor. Ausarta zen, gure garaian bizi izateko modukoa. Horregatik sinisten dut hainbeste emakume eta gizonen arteko berdintasunean.

- **Zein da zure bizitzako leloa?**

Ez dela sekula atzera begiratu behar, beti aurrera.

- **Zer irakurri nahiko zenuke egunkarietan?**

Minbizi mota guztiak sendatzeko tratamendua aurkitu dela, eta inork ez duela gaixotasun hau berriro pairatuko.

Dorleta Vidal

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Pedro Horrillo, Euskal Herriko Itzuliko Zuzendari Teknikoa:

“Ibilbideak bizikleta gaineretik diseinatzea gustatzen zait”

2009an utzi zion pedalei eragiteari, baina txirrindularitzaren beste alderdi batzuetan trebatu da Pedro Horrillo ermuarra azken hamarkada honetan. Iaz hasitako bidetari jarraituta, lasterketen antolatetari bete-betean heldu dio aurten, eta bere debuta ez da nolana izango: apirilaren 8tik 13ra bitartean burutuko den Euskal Herriko Itzuliko Zuzendari Teknikoa baita.

- Errokatat hartu duzu?

Ilusioz beteta hartu dudaren erroka da. Beti gustatu izan zait antolaketa lanak egitea, oso ondo ezagutzen ditut Euskal Herriko errepideak eta esperientzia dut txirrindulari bezala. Polita da orain alde honetan egotea. Iaz ibilbidearen oinarriak finkatuta zeudenean batu nintzen Itzulira. Aurten, berriz, nik diseinatu dut lasterketaren ibilbidea zerotik hasita. Ez naiz lan honetan bakarrik aritu, Ozeanoko Zuzendari Orokorra den Javi Riaño izan dut alboan.

- Lan erraza izan da?

Lan erraza eman dezakeen arren, ikusleek ez dakite zenbat baldintzatzaile dauden hartutako erabakien atzean: segurtasunari lotutakoak, politikoak, ekonomikoak...

- Lan honek txirrindularitzarekin lotu zaitu berriro ere?

Beno, modu batera edo bestera txirrindularitzarekin harremana izan dut azken 10 urteotan ere. *El Pais*eko

kolaboratzailea izan nintzen hainbat urtez, eta erretiratu ostean Frantziako Tourra bidaltzen ninduen komunikabide honek ordezkari bezala. *Rouleur* aldizkari ingelesarekin kolaboratzen dut noizbehinka eta 3 urte darmatzat Tourrean harreman publikoetako ordezkari bezala joaten (Tissot eta Skoda etxeekin). 2013an liburu bat kaleratu nuen, eta aurten Mallorca 312 Martxarekin beste liburu bat kaleratuko dut. Gainera, Giant bizikleta etxearekin harreman estua daukat, eta haien enbaxadorea naiz. Txirrindularitzan txirrindulari eta ikusle izan naiz, prentsan aritu naiz, eta orain antolaketa esparruan murgildu naiz. Honenkin, alderdi guztietan ibili naizela esan daiteke.

- Aurtengo ibilbideari dagokionez, zer berrietasun nabarmenduko zenuke?

Itzuliaren eskema hau izan da beti: astebeteko lasterketa, erlojupeko etapa finalarekin. Etapa hau erabakigai-



Argazkia: Oskar Matxin

ria zen, eta faboritoez azken etapa horrentzako indarrak gordetzen zituzten. Horrek kalte egiten zion ikuslariari. Hori dela-eta, iaz lasterketa erdian ipini genuen erlojupekoa, eta ondo irten zen. Aurten, erlojupekoa lehen etapa izango da. Etapa laburra, txirrindularien arteko aldeak oso handiak ez izateko. Gainera, etapan finalerantz tentsioa egongo da, politak ikuslearentzat, eta bukarerako Arrate eta Eibarko etapak utzi ditugu, ordena horretan.

- Mendi-bideak ere estreinatuko dira...

Bai, bigarren etapan mendiko pistetan ibiliko dira txirrindulariak. Pista hauek ez dira bereziki gogorrak, baina

estuak dira, eta enbudia eragiten dute. Tropela luzatzen da, eta apurtu daiteke. Gainera haizeak jotzen badu edo euria bada, konplikatu egingo da.

- Bizikletan egin duzu Itzuliko ibilbidea?

Bai, ibilbidea bizikleta gainera diseinatzea gustuko. Txirrindulariek biziko dituzten sentazioak, bizikleta gainera bakarrik jaso daitezke. Kotxetik beste modu batera ikusten dira gauzak.

- Zein da zure apustua?

Iazko irabazlearen alde egingo nuke, Primoz Roglic, baina oraindik ez du ziurtatu parte hartuko duen. Bestela, Sky taldeko Egan Bernal aukeratuko nuke.

Dorleta Vidal

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Pinu Insignisaren gaitzaren harira

Domeka goizero egiten dugu Anderrek eta biok gure mendi buelta sakratua. Amama eta aita. Beraiek bertoko eta beraiek gidari. Eurek azaltzen dizkigute zuhaitzen izenak eta bakoitzaren berezitasunak, belarren eta loreen sendatze ahalmenak, landa eremua osatzen duten paisaia mota ezberdinen ezaugarriak, ur iturburuak, gure bizitzeko moduan eta kulturen landa eremuak jokatu eta jokatzen duen papera. Azken finean, eurak dira lurrraren eskuzabaltasunaren jakitun eta guretzat ordezkarri finenak. Plazerra izaten da eurekin bueltaxka egin eta inguruan daukagunaren balioaz ohartzea eta gozatzea.

Azken urtean kezka batek arduratu ditu biak. Pinuen gorritzea eta ihartzea suposatzen duen gaixotasuna. Iazko neguko eta udaberriko tenperatura suabeak eta hezetan handiak izan dira oso denbora gutxian aspalditik gure basoetan baziren onddo hauek hain arin hedatzearen arrazoa. Gipuzkoan hasi eta bera izan da lurralderik kaltetuena. Bizkaian ere dezente hedatu da eta Araban

gutxiago. EAEn guztira kaltetutakoak 32.300 hektarea.

Udazkenetik hona, beraz, basogintza ereduari buruzko eztabaida hizpide bihurtu da. Hiru Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Egur Sektorea eta Neiker Ikerketa Institutua 2017. urtetik dabiltza gaia aztertzen, eta udazkenean legez kanpokoa den eta Madrilek debekatu berri den oxido kuprosoarekin airez fumigatzeko proposamena egin zuten.

Administrazioek eta egurgintza industriak betidanik egurra ateratzera bideratu dituzte denon lur publiko eta pribatuak. Lurra ahultzen joan den egur merkea eta kalitate gutxikoa bultzatu dute, eta momentuz eredu horri eutsi nahi diotela ematen du. Badirudi batzuei hori guztiz errentagarria zaiela.

Natur eta talde ekologistek argi dute. Egungo baso-politikarekin pinuen gaiaz gain, lurra, biodibertsitatea eta etorkizuna dago jokoan, eta basogintza eredu aldatzeko unea da. Basoa modu sostengarrian



Ainara Riveras

ulertzen duen pentsamenduan oinarritutako ereduak izan behar du. Egurgintzaren industrian bakarrik oinarrituko ez den ereduak. Hazkuntza azkarreko beste zuhaitz batzuekin bakarrik ordezkatuko ez dituen ereduak. Jabe txikiak ere kontuan izango dituen ereduak. Hemengo basoak, ingurune naturala eta natur balioak kontuan izango dituen ereduak. Ezinbestean natura eta kultura gu ere bagarelako. Aireak, ura, elikadura, osasuna, aisialdia, bizi ohiturak, tradizioak, denak bertan, denak bizitzarako ezinbesteko.

Kalekumeak izanik ere, ohartu gaitzen, beraz, pinuen gaitza eta basogintzaren gaia krisi ekologiko globalaren baitan kokatu beharra daukagula, eta denon ardura dela. Krisi larri honek balio dezala sostengatzen gaituena funtsean zer den agertzeko. Jada ez dugu albo batera begiratzeko astirik. Gutako bakoitzaren esku dago. Zaindu izango garen hori.

“ Egungo baso-politikarekin, pinuez gain, lurra, biodibertsitatea eta etorkizuna daude jokoan ”



KARABIXTA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarik orduka. © 662012834



Martxoaren 29an
Zorionak Intza!
Martxoak 29an 2 urtetxo beteko dituzu. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



Martxoaren 24an
Zorionak Ihintza!!!
4 urte neska handi!! Muxu pila familia osoaren partez!!



Martxoaren 18an
Zorionak Ander zure 9.urtebetetzean. Segi horren arduratsu eta jatorra. Musu handi bat familia osoaren partez.



Martxoaren 24an
Zorionak Araia!
4 urte neska handi! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



Martxoaren 4an
Zorionak Jokin!
Disfrutatu zure eguna eta datozen guzti-guztiak! Besarkada handi bat.



Martxoaren 8an
Zorionak Tan!
Greba egingo dugu, baina zure eguna ospatu ere! Oso ondo pasa.



Martxoaren 1ean
Zorionak gure etxeko gizon handiari!!!
6 urte txapeldun! Ondo pasa eguna! Zorionak etxeko denon partez, ama, aita eta Mikelen partetik! Aupa Ander!



Martxoaren 16an
Zorionak amama laztana zure 77. urtebetetzean. Maitasunez etxeko guztion partez, muxu potolo bat.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: **Apirilaren 12a.**

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral
aral97.com

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia
- Pazo Señorans
- Txakoli Akarregi
- Añada Real
- Vicente Gandía
- Milana
- Yllera taldea
- Oriol Rossell
- La Loca Juana
- Gomez Cruzado
- Astobiza txakolina
- nitida

aral@aral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

LONDON
-taberna-

MALLABIA 1985

Korrikaren 4. edizioa 1985ean burutu zen. Maiatzaren 31n hasi zen Atharratzen, eta ekainaren 9n bukatu Iruñean. "Herri bat, hizkuntza bat!" izan zuen leloa. Argazkian mallabitar taldea ikus daiteke, Korrika etortzeko zain. "Korrika Markinatik sartzeko zala, Zubibarrire urten geuntzen.

Jose Luis Mugarza eta Juan Luis Gallastegik lagundu eusten Oier txikitxo lepoan ekartzen", dio Mari Paz Zelaietak.

Argazkian agertzen dira, besteak

beste: Mari Paz Zelaieta, Jose

Antonio Gisasola, Iñaki Mugarza,

Patxi Zelaieta, Josu Garitagoitia,

Migel Mugarza, Aitor Uribe eta Alberto Madariaga. Ezin izan ditugu identifikatu Korrikalari batzuk.



ERMUA 1949



Acción Católica taldeko neska gazteak, elizpean. Atzeko ilaratik aurrekora eta ezkerretik eskumara: Luisita Malkorra, Begoña Izagirre, M^a Luisa Pérez, M^a Jesus Areitioaurtena, Higinia Solozabal, Visi Ibaibarriaga (taldeko delegatua eta neskon orientatzaile lanak egiten zituen), Begoña Mallagarai, Nerea Izarra, Begoña Telleria, Begoña Areitioaurtena aspiranteen banderari eusten, Felisa Garitagoitia, M^a Ignacia Olañeta, Agurtzane Salaberria, Begoña Agirregomezkorta, Ines Okariz, Margarita Guridi, Ana Mari de la Calle, Anastasia Mugika, M^a Carmen Albizu eta Diego Garagorri abadea.



IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Ermua eta Mallabia lotzen dituen espaloia abenduan inauguratu zen. Ermua eta mallabitar asko goitik behera eta behetik gora joaten dira egunero bide horretatik: paseoa batzuk, lanerako bidean beste batzuk. Orain arte, errepidetik joan behar izaten zen zati batzuetan, eta kotxe, kamioi eta autobusak oso gertu igarotzen ziren. Segurtasuna bermatzeko helburuarekin, espaloia eraiki da.



Mallabia eta Ermua lotzen dituen espaloia erabili duzu jada?

%67 Bai

%33 Ez

Euskal Birusa Elkarteko Facebookaren bitartez zabalduko inkesta honek 78 bozka jaso ditu.



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Ervailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ZINEA

Hilaren 6tik 8ra:
"¡Qué te juegas!" +
"78 Binladens"

Hilaren 13tik 15era:
"Taxi a Gibraltar" +
"Bel Canto. La última función"

Hilaren 20tik 22ra:
"Mula" +
"Bajo el mismo techo"

Hilaren 27tik 29ra:
"Nación salvaje" +
"El gordo y el flaco"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:
"La mujer de la montaña"

Hilak 11:
"Las herederas"

Hilak 18:
"Maya"

Hilak 25:
"La caída del imperio americano"
Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7:
"Corgi, las mascotas del reino"

Hilak 14:
"Mirai, mi pequeña hermana"

Hilak 21:
"Dragon Ball" (euskeraz)



Hilak 28:
"Capitana Marvel 3D"
Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Hilak 5:
Kontzertua: Depedro.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15€

Hilak 13:
Abesbatzen kontzertua:
Pispillu + Villa de Mojanos (Valladolid)
abesbatzak.
19:45ean.
Santiago elizan.

ANTZERKIA

Hilak 12:
"Cinco horas con Mario", Lola Herrerekin.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15€

DANTZA

Hilak 6:
Euskal Jaia: Dantza erakustaldia, larraindatza eta erromeria.
19:00etatik aurrera.
Plazan.

Hilak 7:
Euskal Jaia: Kalejirak, dantza erakustaldia eta erromeria.
12:00etatik aurrera.
Plazan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 6:
Haurrentzako ipuin-kontakteta ingelesez.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

Hilak 27:
Haurrentzako ipuin-kontakteta ingelesez.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 12:
Korrika txikia: Korrika, txokolate-jana, disko-festa, tailerrak...
15:15etik aurrera.
Orbe kardinalaren plazan.

Hilak 13:
Korrika eguna: mokadu autogestionatua, kalejira, Korrika, kontzertua...
12:00etatik aurrera.
Orbe kardinalaren plazan.



Hilaren 26tik 28ra:
Erdi aroko azoka: hainbat ekitaldi.
Goizez eta arratsaldez.
Orbe kardinalaren plazan.

Patxi López

TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

PRO
arraindegia

ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

berbetan

jardunaldiak

euskararen gaineko gogoetak

MARTXOAK

27

19:00

Hitzaldia



LOBIANO
KULTUR
ETXEAN

"kontakizuna feminista izango da" Kattalin Miner

LOBIANO
KULTUR
ETXEAN



Tertulia

APIRILAK

3

18:30

Tertulia para reflexionar sobre el uso del euskera de nuestros/as niñas/os
Hizkuntza erabileraren gaineko solasaldia
Gazteleraz/castellano

APIRILAK

10

18:30

GO!AZEN, ZATOZI!
solasaldi musikatua



LOBIANO
KULTUR
ETXEAN

GOAZEN-ekoekin solasaldi musikatua.
Bertan Ylenia Baglietto, Iker villa eta Maria Redondo

antolatzaileak



babeslea




OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

FUB Mediku psikiatra · Psikosomatika
 Psikoterapia psikoanalitikoak
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN
 Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
 Bailén Kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
 furizar1@yahoo.com

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel: 943 17 71 94

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta implante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hortz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hortz klinika berritu eta handitu dugu
 San Inazio 4 Ermua Tel.: 943 030 512
 niklinika@gmail.com

NATURA 
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 · Elikagai biologikoak
 · Terapia naturalak
 · Naturopatarekin kontsultak
 · Masajeak
 · Dietistarekin kontsultak
 · Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

OSASUN GIDA

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen
 den odontologia
 La odontología
 que se adapta a tí
SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKA Y CLINICA DENTAL
 Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1284
 · P.A.D.I
 · IMQ
 · SANITAS
 · DENTYRED
 · AZKARAN
 · OCASO
 943 17 04 04
 info@clnicasanpelayo.com
 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

SHEN
 Txinatar medikuntza
 tradizionala
 Osteopatia
 Kiromasajea
 611 173 439
 Marques de Valdespina 8 behea
 Ermua - Bizkaia

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo
 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera